


HARREMANAK

Bezeroen parte-hartzea gure proiektuarekiko ezinbestekoa da. Bezeroak mantentzea garrantzitsua bada ere, kontsumitzaile berrien etorrera ere zero garrantzitsua da. Halere, ure lehendabiziko betebeharra gure erosleekiko harreman osasuntsua izatea eta hau zaintzea da; atal honetan tratu hauek nolakoak izango diren azalduko dugu.



Salduko ditugun menuen egitura pertsona bakoitzari egokituta egongo direnez, bezeroekin izango dugun harremana pertsonala izango da; beraien lehentasunak kontuan izanik.

Ahalik eta produktu hoberenak eskaintzeko, kontsumitzaile bakoitzaren beharretara bideratuko gara; izan ere, gorputz bakoitzak ezberdin erantzuten du dieta mota bakoitzari eta edozein alergia edo gaixotasun sahiestu nahi dugu. Gure bezero bakoitzak bere dieta pertsonalizatu eta osasuntsua gozatzea dugu helburu. Modu honetara, gure arteko konfiantza landuz, eta bakoitzaren gogoetari planteamendu bat jarritz, harremana sendotzea lortuko dugu.

Gure eskaintza Goierrri mailan izango da, bertako produktuaren erabilera bermatuz. Harreman aipagarriena jende gaztearekiko izango da, batez ere unibertsitatea dela eta, etxetik kanpo bizi direnentzat. Kasu gehienetan sukaldatzen ez dakiten horientzat eta etxeko jakiak faltan botatzen dituztenentzat.



Gurekin harremanetan jartzeko, webgunean txertatu ditugu gure helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. Harpidedunari edozein zalantza edota zerbaitekiko iradokizun bat jakinarazi nahi badiogu Whatsapp bidez komunikatuko gara, zerbitzua ahalik eta azkarrena eta gertukoa izateko. Ez dugu gure bezeroekin kontaktu zuzena izango arazo bat gertatu ez bada, baina Whatsapp bezalako herramientak erabiliko ditugu gertutasuna azaltzeko eta guregan duten konfiantza sustatzeko.

Gainera, gure lana modu egokian egiten hari garelako ziurtatzeko eta bezeroa prozesu guztiaren parte izan dadin, hilabeteetan behin inkesta bat betetzea eskatuko dugu. Edozeinek

zerbait berria proposatzeko duen jakiteko, aldaketarik planteatzeko edota edozein jaki berri gehitzeko balioko du. Bestalde, gure web orrialdean iradokizunak atxikitzeke atal bat egongo da. Atal honetan norberak bere iritzia eman dezake, kritikatu edota zoriondu. Beraz, gurekin harremanetan jartzeko baliabideak ugariak izango dira.

Amaitzeko, harpidetza berriekin harremanetan jarriko gara. Harremana sendotzeko mezu bat bidaliko diegu guregan konfiantza izateagatik eskerrak eman ez eta edozein zalantza badute galdetu dezaten adieraziz.